

IKUSENTZUTEKOEN GAITASUN TEKNIKORAKO IKASTARO ETA MINTEGIAK

LARROTXENE (INTXAURRONDO)

GIDOI ZINEMATOGRAFIKOA JOSE LUIS BORAU

Gidoi zinematografikoko ikastaroa teorikoa eta praktikoa izango da, baina arreta berezia eskainiko zaio gidoi bat eratzeko iharduerari: istorioaren egitura, gidoi teknikoaren eta gidoi literarioaren arteko harremana, elkarrizketak, etab. landuz. Gidoi-tipoak egingo dira, gidoi bat idazterakoan sortu ohi diren arazoei irtenbidea bilatuz.

Datak: Maiatzak 8, 9, 15 eta 16.

Ordutegia: Larunbatetan, 10etatik 2etara eta 4etatik 8etara. Igandetan 10etatik 2etara.

Izen ematea: 10.000 pzta. Prezio murriztua (Gazte Txartela, Nosferatuko bazkideak eta langabetuak): 7.500 pzta.

Leku mugatuak.

Izen emateko era eta epea: 291954 telefonora deituz, 17'00etatik 20'00etara, Apirilak 26tik Maiatzak 7ra.

Lekua: Larrotxene Kultur Etxea. Intxaurren, 57. 20015 Donostia.

José Luis Borau zine zuzendaria, ekoizlea eta gidoigilea da. 1963 ezkeroztik zenbait laburmetraia egin ditu, besteren artean: "Hay que matar a B." (1974), "Furtivos" (1975), "La Sabina" (1979), "Río abajo" (1984) eta "Tata Mía" (1986). Telebistarako egin dituen lan ugariaren artean aipa dezagun orainsu burututako "Celia" telesaila, arrakasta handia izan duenez bigarren zatia errodatzen ari direna. Eskolak eta hitzaldiak eman ditu baita ere hainbat herrialdetan: Californiako Unibertsitatean, Colombia, Cuba, Dinamarka, Ingalterra, etab.



LARROTXENE (INTXAURRONDO)

ERIC ROHMER: ADIERAZPIDE BATEN ELEMEN- TUAK CARLOS F. HEREDERO ETA ANTONIO SAN- TAMARINA

Rohmer-en obra aztertzeko mintegia, Rohmeren zinea izatez den organismo bizi eta bere baitan bilduaren sarrera gisa eskainiko diren proposamen eta hurbil-bideei buruzko eztabaida aktiboa bultzatuko duena. Testuinguru historikoa, adierazpide zinematografikoari buruz zituen teoriak, bere sormenaren filosofia, bere filmografiako zatiak, bere egitura narratiboak, eta bere zineko beste aipamen batzuk aztertuko dira. Eskola guztietan Rohmeren filmeetako zatiak ikusi ahal izango dira eta, zenbaitetan, filme osoak.

Iraupena: Urriaren 4tik 8ra.

Ordutegia: 16'00etatik 20'00etara.

Izen ematea: 10.000 pzta. Prezio bereziak (Gazte Txartela, Nosferatuko bazkideak eta langabetuak): 7.500 pzta.

Leku mugatuak.

Izen emateko era eta epea: 291954 telefonora deituz, 17'00etatik 20'00etara, Irailak 13tik 30era.

Lekua: Larrotxeneko Kultur Etxea. Intxaurren, 57. 20015 Donostia.

Carlos F. Heredero historialaria eta kritikoa zinematografikoa da. Zinea kritika egiten du Diario 16n eta Comunidad Escolar-en, eta Dirigido por, Archivos de la Filmoteca eta Nosferatu bezalako aldizkari espezializatuetan parte hartzen du. Hamar liburu idatzi ditu, besteak beste: "John Huston" (1984), "Joseph L. Mankiewicz" (1985), "Iván Zulueta: la vanguardia frente al espejo" (1989), "José Luis Borau: teoría y práctica de un cineasta" (1990) eta "Eric Rohmer" (1991).

Antonio Santamarina Filologia Hispanikoan lizentziaduna da. Mundo Obrero-ko liburu saila zuzendu du eta liburuen kritika egiten du Diario 16n ("Culturas" gehigarrian). Madrileko Unibertsitate Autonomoko Literatur Departamentuak zuzendutako "Letra" -XX. mendeko literatura espainolaria buruzko CD-ROM bat- proiektuan parte hartu du, eta "Eric Rohmer" liburuak idatzi du, Carlos F. Herederorekin batera.

CURSOS Y SEMINARIOS DE CAPACITACION TECNICA AUDIOVISUAL 1993



Larrotxene Kultur Etxea